ZURE NEURRIRA

GALARTXA, S.L.
FONTANERIA
CALEFACCION Y GAS

Utzubar Industrialdean (ARBIZU)
www.galartxa.com
galartxa@galartxa.com
948 460 027

RIKA windhager

AURKIBIDEA

3
ASEGURUAK
Zaindu eta babestu
maite duzun hori

4
ARKITEKTURA

4. or.
Etxea ez da teilatutik hasten

5. or.
Etxe bat eraikitzerakoan
oinarri sendo bat
izatea ezinbestekoa da

6
EGUNGO ARKITEKTURAZ HIZKETAN

7
PASSIVHAUS ERAIKINAK
Passivhaus etxe bat
edozein enpresa
edo harginek egin dezake

8
DEKORAZIOA

9
ETXEGILEAK
9. or.
Marmol eta harri naturalak

10. or.
Covid-19 pandemiaren
ondorengo egiturak

11
LEIHOAK
Utzi aire garbia
leihotik sartzen!

12
PERTSIANAK
Eguzkiaren onena? Itzala!

13
AIREZTATZE -SISTEMAK
Aireztatzearen garrantzia

14
PINTURA
Arriska gaitezen koloreekin!

15
IGELTSEROTZA

15
ZURGINTZA

16
ITURGINTZA
16. or.
Zein berotze sistema
behar dut?

17. or.
Txorrotak: bainugelarako
eta sukalderako

18
PELLET BEROGAILUAK
Tenperatura egokia
lortzeko aukera ekologiko
eta eraginkorra

19
BAINUGELAK
Erlaxatzeko momentua iritsi da

20
ETXEEN ZAHARBERRITZEA
Zaharberritzeko
2020ko laguntzak

22
BIOMASA
Zer da biomasa? Nola kudeatu
Sakanako biomasa?

ASEGURUAK

ZAINDU ETA BABESTU MAITE DUZUN HORI

Jakintzat jo beharrean, komeni da aseguruan zer sartzen den ongi irakurtzea, etxeko ondasunen balioa zehaztea eta balio hori aseguruan sartuta dagoela baieztatzea

ESKATU AURREKONTUAK ETA ALDERATU KALITATE-ESTALDURA PREZIO ERLAZIOA ETA BAKOITZAREN ALDEKO NAHIZ KONTRAKO ABANTAILAK. SINATU AURRETIK, AZTERTU ARRETAZ POLIZAREN BALDINTZA OROKOR ETA BEREZIAK, ETA ONGI IRAKURRI KLAUSULA GUZTIAK

Aseguru garestienak estaldurarik hoberenak eskainiko dituela pentsatzeko joera dute batzuek. Beste askok, aseguru guztiek gauza bera babesten dutenez, merkeena kontratatzea erabakitzen dute. Baina, errealitatean, erabaki hau hartzea, dirudiena baino zailagoa izaten da.

Aseguru bat aukeratzeko momentuan hainbat faktore kontuan izan behar dira: pertsonaren adina, bizilekua, lana eta zaletasunak…

Era berean, etxebizitza baten asegurua kontratatzea aseguru pertsonala bezain garrantzitsua da. Lokal baten egoera, kokaleku geografikoa, zein aktibitatean diharduen, lapurreta edota suteak eragozteko babesa duen jakitea erabakigarria da.

ARKITEKTURA

ETXEA EZ DA TEILATUTIK HASTEN

Arkitektoa eraikuntza prozesu guztiaren ezagutza globala eta integratzailea duen profesionala da, ikuspegi estetiko zein funtzionala garatzen duena

Ingeniaritzan, arkitekturan eta delineazioan espezializatutako enpresak proiektuak idazteaz, lanak kudeatzeaz eta obrak zuzendu nahiz gainbegiratzeaz arduratzen dira, batik bat.

Haien helburu nagusia bezeroei beren premiekin bat datorren tratu hurbila eta zintzoa ematea da. Eginkizun hau betetzeko, zerbitzu integral eta pertsonalizatuak eskaintzen dituzte.

Zerbitzuak azkarra izan behar du, proiektuen garapenean sor litezkeen arazoak azkar konpontzea ahalbidetzen du, esate baterako: legeztapenak, kudeaketak, aldaketak eta moldaketak.

Proiektua martxan jarri eta obran esku hartuko duten gainerako profesionalak koordinatzeaz arduratzen dira, bezeroei zenbait buruhauste saihestuz.

Bestalde, mota honetako enpresek legediaren eta bezeroen beharrizanen araberako bermea eta erantzukizun zibila dituzte berekin.

ETXE BAT ERAIKITZERAKOAN OINARRI SENDO BAT IZATEA EZINBESTEKOA DA

Eraikuntza bat abiatzerakoan hainbat egitura sistemen artean aukera dezake bezeroak: egurrezkoa, egitura metalikoa, altzairu arin nahiz astunekoa. Hona hemen merkatuan eskaintzen diren bi oinarri erabilienak:

ERAIKI BEHAR DEN ERAIKINAK ZEIN EGITURA IZAN BEHAR DUEN ERABAKITZEKO, GARRANTZITSUA DA PROIEKTUA ARGI DEFINITUTA IZATEA ETA HONI HOBEKIEN EGOKITZEN ZAION EGITURA IDENTIFIKATU AHAL IZATEA

KALIBRE ARINEKO ALTZAIRUZKO EGITURA

Altzairua da azken urte hauetan gehien ugaritzen ari den eraikuntza materiala. Izan ere, material honi esker, eraikinak denbora gutxian eraiki daitezke. Eraikuntzetan altzairua habeetan, muntaketan eta plaketan erabil daiteke. Gainera, pieza bakoitza geruza galvanizatu batekin babestuta dago. Orain arte, material hau, batez ere, merkataritza-eraikinetan erabili izan da, baina gaur egun, bezero askok euren etxeetako oinarri gisa erabiltzea erabaki dute.

EGURREZKO EGITURA

Ezbairik gabe, egurrezko egitura da antzinatasun handiena duena eta gehien erabili eta erabiltzen den egitura. Arrazoien artean nagusiena materialaren ugaritasuna, berriztagarria dela eta bere kostua jende askoren eskura dagoela. Desabantailen artean, aldiz, merkatuan dauden beste material batzuk baino errazago hondatzen dela da.

EGUNGO ARKITEKTURAZ HIZKETAN

ARQYME ARKITEKTURA

Ze lan mota sartzen zaizkizue orokorrean?
Eraikin mota ezberdinetarako proiektuak prestatzen ditugu, dela obra berria dela errehabilitazioa. Inguratzaileak hobetzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko proiektuak egiten ditugu eta kasu bakoitzarekiko dagozkion dirulaguntzen kudeaketa. Proiektuak ingurune industrialean, tokiko administrazioetan eta bizitokien eraikuntzetan garatzen ditugu.

2020 urtetik ona sartu diren lanen artean alderik bai?
Konfinamenduan sartu ginenetik, herriguneetan etxebizitza bakarren eskaera handia eta jarraitua da. Altsasuk ia ez du mota horretako zorurik eta jende askok ezin du bere nahia edo ametsa bete eta guk horren ondorioz ezin dugu horrelako etxebizitza proiekturik garatu.

Zeintzuk dira herritarrek dituzten lehentasunak gaur egun?
Bizitokien eraikuntzetan eskatutako guztia bete ondoren, ia kontsumorik gabeko etxebizitza bat lortzea, erosotasun handienarekin eta ahal den energia aurrezki handienarekin. Bezeroak eskatu gabe ere hau eskaintzen zaio. Administrazio eta komertzial proiektuetan, aurreko guztiak du lehentasuna, baita funtzionalitateak eta itxurak ere.

Etorkizunerako erronkak arkitekturari dagokionez?
Bezeroaren eskaerari aurreratzea, irtenbide orekatu eta inklusiboak lortze aldera. Gizarte aldakor batek eska ditzakeen ingurune eta etxebizitza ezberdinak diseinatu. Naturak eskaintzen dizkigun baliabideak aprobetxatu ingurune jasangarriak lortzeko.

IGER ARKITEKTURA

Ze lan mota sartzen zaizkizue orokorrean?
Mota guztietako lanak sartzen zaizkigu, etxe berriak egitetik, zaharberritzetara. Baita igogailuak jarri edo eraikinak isolatzea ere.

2020 urtetik ona sartu diren lanen artean alderik bai?
Ikusi duguna da jende asko etxea eraberritzera animatu dela. Konfinamenduak etxe bakoitzaren gabeziak ikusarazi dizkio jendeari, antza denez. Jardina duten etxeen eskaera ere handitu zaigu.

Zeintzuk dira herritarrek dituzten lehentasunak gaur egun?
Alde batetik, efizientzia energetikoa eta, bestetik, kanpoko espazioak asko baloratzen hasi dira (balkoiak, terrazak, lorategiak, etab.).

Etorkizunerako erronkak arkitekturari dagokionez?
Gure ustez, gizarte bezala, erronka eraikin zaharrei bizi berria eta efizientea ematea izan beharko litzateke.

MARIASUN ERDOZIA ARKITEKTURA

Ze lan mota sartzen zaizkizu orokorrean?
Denetarik, jendearen beharren arabera: txosten teknikoak, efizientzia energetikoaren ziurtagiriak, berrikuntza partzialak:

- Teilatuen zaharberritzeak isolamendua hobetzeko.
- Hobekuntza energetikoa.
- Obra berria eta baita aktibitate proiektuak ere.

2020 urtetik hona sartu diren lanen artean alderik bai?
Bereziki nabarmenduko nuke emakume ekintzaileek aurrerapauso bat eman dutela proposamen berriekin, eta poz handia izan da haiek ni kontuan hartzea beraien proiektuen parte izateko.

Zeintzuk dira herritarrek dituzten lehentasunak gaur egun?
Etxeak zaharberritzeko garaian lehentasuna hobekuntza energetikoa eta irisgarritasuna da orokorrean, eta egoera honekin baita etxearen malgutasuna hobetzea ere asko baloratzen da. Obra berrietan, erosotasuna eta estetikaz gain, autosufizienteak izatea da lehentasuna.

Etorkizunerako erronkak arkitekturari dagokionez?
Egungo egoerak bultzatuta, barruko espazioek garrantzia hartuko dute: tamaina, argitasuna... denbora gehiago pasatzen dugu etxean, jende askok etxetik egiten du lan, eta espazio hauek osasuntsuak izateak gero eta garrantzia handiagoa du, etxea ondo aireztatua egotea ezinbestekoa da bai energetikoki nola osasun aldetik ere.

PASSIVHAUS ERAIKINAK

PASSIVHAUS ETXE BAT EDOZEIN ENPRESA EDO HARGINEK EGIN DEZAKE

OHIKO ETXEEKIN ALDERATUTA, BEROKUNTZAN, PASSIVHAUS ETXEEK %75-90 AURREZTEN DUTE. AURREZPEN HAU LORTZEKO, EMAN BEHARREKO LEHEN PAUSUA TOKIKO BALDINTZA KLIMATIKOAK APROBETXATZEKO ERAIKUNTZAREN DISEINUA LANTZEA DA

Kontsumo energetiko baxua duten eraikinak egiteko eraikuntza kontzeptuari deitzen zaio Passivhaus. Edonoren poltsikora egokitzen da eta barne erosotasun maila altua eskaintzen du. Hauexek dira Passivhaus batek bete behar dituen oinarrizko printzipioak:

- **Isolamendu termiko ona.** Eraikuntzaren inguru osoan isolamendu termiko altua izatea bilatu behar du.
- **Zubi termikoen kontrola.** Berotasuna nondik galtzen den identifikatu behar du. Honetarako, elementu ezberdinen junturak ongi elkartu direla egiaztatu behar da galtze energetikoak saihesteko.
- **Kanpo zurgintza kalitate onekoa.** Zurgintza eta beiraren kalitatea bezain garrantzitsua da hauen instalazio egokia egitea.
- **Haize-estankoa.** Eraikuntzaren barnean nahi ez diren haize filtrazioak saihestean datza.
- **Aireztapen mekanikoa.** Barneko haizearen berotze-energiaren zati handi bat berreskuratzean datza.

Oinarrizko bost printzipio hauek betetzeko prozedura osoa kalkulu zehatz baten bitartez egin behar da. Passivhaus etxe baten kostua etxebizitza tradizionalen kostutik %10ean hazten da, baina gehikuntza hau 8-10 urtez berokuntza kontsumoan berreskuratzen da.

DEKORAZIOA

IZAERA DUTEN PARETAK

Pareta deigarriak boladan daude. Hartara, paretetan bi, hiru edo lau kolore nahiz testura ezberdinak nahastuko dira. Paretek gelaren protagonismo osoa bereganatuko dute.

BIHURGUNE BIHURRIAK

Gora begira jarriko gara, lanparek garrantzi berezia hartuko baitute.
Forma bihurgunetsu eta borobilek gelari dinamismo eta izaera handia emanen diote.

ETXETRESNA ADIMENDUAK

Smart homerako joera are gehiago hedatuko da 2020an. Adibide gisa: wifi bozgorailuak eta Internet bidez funtzionatzen duten etxetresnak hedatzen hasiko dira.

OINARRIRA BUELTAN

Iraunkortasun eta ekologiarekin loturiko material naturalen joerak indarrean segitzen du. Horrela, eragin ekologiko txikienarekin osatutako altzariak hobetsiko dira.

ETXEGILEAK

MARMOL ETA HARRI NATURALAK

2020ko joeretako bat formatu handiko baldosak izanen dira. Azken urteetan garatutako teknologia berrikuntzekin harri naturala irudikatzen duten baldosak instalatzea lan erraz eta dotorea bilakatu da. 2020an etxeko hainbat elementutan ikusiko da harria: paretetan, egongelako mahaian edo komunetan, besteak beste. Diseinuko elementu gisa indarra hartzen ari da: tximinia inguruak, paretak... apaintzeko.

Granitoa, gneisa, kareharria, marmola eta arbela dira gehien erabiltzen direnak. Material naturalak izanik, eraikuntzan erabili aurretik landu egin behar izaten dira: harrobietatik erauzi, moztu, landu eta leundu.

ALUMINIOS ERVITI

ALUMINIOS ERVITI

COVID-19 PANDEMIAREN ONDORENGO EGITURAK

Itxiturak erabilita, obra handiegirik egin gabe, etxebizitzan metroak edota argitasuna irabaztearen aldeko apustua egin daiteke

Itxialdian igaro dugun denbora horretan etxe ideala nolakoa izan litekeen pentsatzeko denbora asko izan dugu. Argi dago pandemia honek egunerokotasuna ulertzeko moduan eraginen duela, eta, kasu honetan, baita etxea pentsatzeko eta eraikitzeko moduan ere.

Aditu askoren ustez, pandemiaren ondotik oso estimatuak izanen dira espazio ireki eta moldagarriak, baita airea erraz aldatu daitekeen espazioak ere. Hortaz, balkoi eta terrazek inoiz baino garrantzi handiagoa hartuko dute.

Orain, arkitektura eta osasuna loturik egonen dira. Diseinu nahiz materialek etxean bizi diren kideen osasuna babestu eta bermatzea bilatuko da: airearen kalitatea, eguzkiaren argia, ura, soinuak eta materialak jasangarri eta osasunarentzat onuragarriak izatea.

Jar gaitezen kanpora begira!

Patioak, terrazak eta lorategiak ez dira udarako soilik. Hotzetik edota euritik babesteko itxitura bat eraikitzean neguko egun luzeetan irakurtzeko edo lagun artean tertulian egoteko espazio bat sor daiteke. Gainera, kanpo-espazioak egokituz urte osorako txoko bat izanen duzu eta obra handirik egin gabe espazioa irabaziko duzu.

LEGARBE ERAIKUNTZAK S.L.

629 420 515 • 948 461 075
info@construccioneslegarbe.com

Arluzepe 2, behea
Etxarri Aranatz

SUSTAPENA-ERAIKUNTZA-SALMENTA

ALUMINIOS ERVITI

LEIHOAK

UTZI AIRE GARBIA LEIHOTIK SARTZEN!

Egoera kaskarrean dauden leiho zaharrak kendu eta eraginkorragoak diren beste batzuengatik aldatzea lan erraza eta azkarra izateaz gain, diruz lagundua den obra ere bada.

Emaitzarik onenak lortzeko beiraren kalitatea (mota, lodiera, aire-kamararen lodiera...), markoaren materialaren kalitatea (egurra, PVC, altzairua...) eta leihoa itxi eta irekitzeko sistemak dira gehien erreparatu behar diren alderdiak. Leihoaren instalazioa ongi eginda egotea funtsezkoa da, batez ere, beira eta markoa ongi lotuta egotea ezinbestekoa da. Leiho moten artean hauek nabarmentzen dira:

EGOKI

ALUMINIOZKO LEIHOAK

Tenperatura aldaketekin iraunkorrak dira eta hainbat koloretan pinta daitezke. Gainerako materialak baino azalera txikiagoa izan ohi dutenez, kanpoko argia gehiago aprobetxatzea ahalbidetzen dute.

EGURREZKO LEIHOAK

Isolatzaile onak izateaz gain, estetikoki oso ederrak dira. Ohituraz, gure eskualdeko etxebizitza gehienetan erabili izan dira eta egun ere erabiltzen dira.

PVC LEIHOAK

Isolatzaile termiko eta akustiko bikaina dira, hortaz, maiz, toki hotzetan erabiltzen dira. PVC material birziklagarria eta garbitzeko erraza da, ura eta xaboi arrunta baino ez baita behar.

LEIHO MISTOAK

Arrazoi estetiko eta funtzionalak tarteko, gero eta gehiago erabiltzen dira. Adibidez, gero eta maizago ikus daitezke barnetik egurrezkoak eta kanpotik aluminiozkoak diren leiho mistoak.

PERTSIANAK

EGUZKIAREN ONENA? ITZALA!

Leihoak eta pertsianak aldatzeko orduan komenigarri da aukerak ongi aztertu eta aurrekontuak eskatzea. Inbertitu erosotasunean, eta fakturan aurreztuko duzu

Leihoak egoera onean izatea bezain garrantzitsua da hauek babesten dituzten pertsianen egoera ere ona izatea. Pertsianen eginkizun nagusia etxean bizi direnak eguzkitik, eta kanpoko tenperaturaren hotz eta beroetatik babestea izanen da. Gaur egun merkatuan hainbat materialetan egindako pertsianak ditugu aukeran.

PERTSIANA MOTORIZATUAK

Pertsiana motorizatuen artean ere aukera zabala dago: korronte zuzeneko motorrak, irrati-motorrak, kable bidezko motorrak eta era guztietako maniobra-koadroak. Eguzki-plaken bidez elikatutako motorrak ere badira.

Motorizatutako pertsianen bizitza erabilgarria eskuzko pertsianena baino askoz ere handiago da. Ez hori bakarrik, pertsiana arruntek baino arazo gutxiago izan ohi dituzte, bezeroari hainbat buruhauste kenduz.

ALUMINIOZKO PERTSIANAK

Instalatzeko errazak direnez, gaur egun gehien erabiltzen direnak dira. Tenperatura aldaketekin iraunkorrak dira eta hainbat koloretan pinta daitezke.

SEGURTASUN PERTSIANAK

Merkatuko beste pertsianak baino zurrunagoak dira, eta autoblokante izeneko sistema dute. Sistema honen bidez, ia ezinezkoa da pertsiana altxatzea. 4,5 metrora artekoa eta nahi den kolorean egiteko aukera zabala eskaintzen dute.

AIREZTATZE-SISTEMAK

AIREZTATZEAREN GARRANTZIA

Zer da aireztatzea?
Guztiok jakin dezakegu zer den aireztatzea baina kontzeptua modu erraz batean azaltzeko, etxebizitza batean gai kutsakorrek eraginda, hezetasunak sortuta, tenperaturak eraginda edo beste edozein arrazoiengatik geratzen den aire biziatu hori, kanpoan kalitate hobean dagoen aireagatik aldatzea da.

Prozedura hau modu naturalean egin daiteke haizearen ekintzarekin edo modu mekanikoan haizagailuak erabilita. Kasu honetan bigarrena da aipatu nahi genuena etxebizitzetan hauek direlako arruntenak: fluxu sinplezko aireztatze mekanikoa edo fluxu bikoitzekoa.

Zergatik aireztatu behar dugu?
Arrazoiak asko izan daitezke baina hiru aipatuko ditugu:

- **Osasuna:** Ongi aireztatzen ez den etxebizitza batek aire pobrea du, oxigeno gutxi eta CO^2 asko. Honek onddoak eta bakteriak areagotzea ekar lezake eta osasun arazo asko sor litzake, adibidez, eztula, nekea, edota buruko mina.

- **Erosotasuna:** Aireztatzearen helburua barruko airea kalitatezkoa izatea da, honek erosotasun termikoa eta akustikoa eman behar digu.

- **Eraginkortasun energetikoa:** Aireztatze sistemek modu kontrolatuan egiten dute lan, kontrol sistemak jasotzen duen eskaeraren arabera. Eskaera elementu kaltegarriek sor dezakete (hezetasuna, kutsadura, CO^2) edo erabiltzaileek (freskatzeko helburuarekin, aire kalitate hobea nahi dutelako).

Hiru arrazoi hauei beste bat gehitu geniezaioke: derrigorrezkoa delako egitea. Badira etxebizitzak eta eraikinak hau ezartzera derrigortuta daudenak. Gaur egun, zorionez gero eta gutxiago dira aireztatze sistema bat egungo legediari uko eginez instalatuta daudenak. Sakanan badira enpresak aireztatze sistema hauek ezartzen esperientzia dutenak.

PINTURA

ARRISKA GAITEZEN KOLOREEKIN!

Etxea margotzeko aukeratzen dugun kolorea oso garrantzitsua da. Koloreek sentsazio eta emozioak sentiarazten dituzte, batzuek tristura eta beste batzuek alaitasuna transmiti dezakete. Etxeko gelei estilo modernoa emateko hona zenbait joera:

ETA ALTZARIAK MARGOTUKO BAGENITU?

Indartsu heldu den joera da. Modu honetan, etxean zaharkituta ditugun altzariei probetxua atera eta berriak bailiran molda ditzakegu. Itxura berria emateaz gain, pinturak altzariei babes kapa bat ematen die.
Egia esan, altzari batek aldaketa ikusgarria izan dezake pintatu eta argizaria emanda. Piezak duen egoeraren arabera, ez da gehiago behar.

ARROSA, BEIXA ETA GRISA

Hain modan dagoen ekialdeko estiloarekin bat egiten duten koloreak dira eta ongi baino hobeki ezkontzen dira elkarrekin. Material naturaletan inspiratutako tonu hotz eta beroko paleta orekatua osatzen dute.

GOROLDIOAREN PAREKOA

Egur naturalari protagonismoa ematen dioten landa giroko diseinuetan paretak berdez pintatzea gomendatzen dute: tonu ilun samarretan.

URDIN ILUN ILUNA

Urdin ilunaren eta beltzaren artean dagoen tonua, horixe gomendatzen dute hormetako bat nabarmendu nahi bada. Emaitza oso dotorea da.

HORIA, BEIXA ETA BERDEA

Oasi bila dabiltzanentzat paleta hau ezin hobea da. Urtaroetan oinarritzen da, eta itsaso, hare, baso eta zeruko tonu aberatsez baliatzen da.

LUR KOLOREA ETA KORALA

Diseinu modernoak boho giroko estiloarekin lotzeko bidea ematen duten koloreak dira.

IGELTSEROTZA

EÑAUT ALBARRAZIN GOLDARAZENA

Zein lan mota egiten dituzu?
Ezberdinak izaten dira baina batez ere bainuontziak aldatu dutxa ontziagatik. Aurten sukaldeak jangelarekin bateratzeko lanak ere egin ditut. Eta beti ere izaten dira teilatuko mantenuak, teilatu-hodiak garbitu, hautsitako teilak aldatu, tximiniak jarri eta halakoak besteak beste.

Azken urte honetan aldaketak nabaritu dituzu bezeroen eskaeren artean?
Bai, etxeetako lekua berregokitu nahi izan da, espazioak handitu, eta adibidez pelleterak ere egin izan ditut, pelletaren kanalizazioak, haizearen hoditeriak, etxe bakoitzaren araberako egokitzapenak. Berokuntza sistema asko ere aldatzen ari dira, dirua eta energia aurrezte aldera.

Sakanatik kanpo lan egiten duzu?
Ez batez ere hemen. Araia aldean ere lanen bat egiten dut, gertutasunagatik baina batez ere Sakanan egiten dut lan.

Jendea zurekin harremanetan jartzen da eta gero zer?
Gero ni etxera gerturatzen naiz eta bertan gaudela bezeroak daukan ideia baloratzen dugu. Normalean jendeak nahiko argi dauka zer egin nahi duen baina gero hor daude karga-hormak, elektrizitate kutxak, argiteria nola jarriko den aztertu, altzari mota... hainbat aldagai kontuan hartu behar direnak.

Horrelako lanak egiteko baimenak eskatu behar dira?
Bai bai, nik aurrekontua prestatzen diet eta gero obra txiki hauentzako lizentziak berehala ematen ditu udalak.

Nola daramazu lan egin eta jendea bertan bizi bada?
Bueno, denetatik. Bada jendea gainean dagoena eta beste batzuk lasaiago uzten zaituzte, baina jendea bizitzen ari den etxebizitza batean lan egitea zailagoa da. Lan horiek lehenbailehen bukatzea nahi izaten da eta presioa ere badago. Bezeroaren exijentzia maila ere gero eta handiagoa da. Igeltserotza lana lan-esku merkeenetariko bat da baina materialak diru asko balio du.

Materiala Sakanan erosten duzu?
Sakanan ditugun eraikuntza-dendetara gero eta gehiago jotzen da. Nik kalitate oneko materialarekin egiten dut lan eta bertako dendetan duguna ikusita prezioa eta kalitatea orekatuta daudela iruditzen zait.

ZURGINTZA

JOSE ANTONIO SALGADO DIEZ

Zenbat urte daramazu zurgintzan?
Zurgindegiak 70 urte ditu eta nik 37 lanean. Lehenik nire aitak kudeatzen zuen, gero lehengusu batek eta ordutik ni nabil, beste langile batekin batera eta administrari lanak egiten dituenarekin hiru gara lan taldean. Gehiago izan gara baina garaiak ez dira onenak.

Zein lan mota egiten dituzu?
Duela urte askotako lana egiten jarraitzen dugu. Formika sukaldeak egiten aitzindarietako batzuk izan ginela uste dut, baina batez ere gu altzariak egiten gabiltza. Zurgintza lanak egiten ditugu ere baina gehienbat egongeletako eta bulegoetako altzariak, sukaldeak, armairuak, zoruko egurra... hainbat lan ezberdin egiteak krisialdi honetan lana mantentzeak ekarri digu.

Zuen bezeroaren profila zein da?
Herritarrak dira gehienetan, bezero txikiak baina lan egiten dugu ere etxegileekin eta haiek lan kopuru handiagoa eskatzen digute. Enpresa handiagoentzat ere enkarguak badauzkagu.

Exigentzia maila handia dago merkatuan?
Bai, horretan ere aldea nabaritu dugu. Bezeroak informazio asko du, beste leku batzuetan begiratuta etortzen da guregana. Batzuetan guk baino gehiago daki! Kar, kar, kar!

Zuek prozesu guztia bertan egiten duzue?
Bai bai. Oholak jasotzen ditugu (batzuetan ertzak landu gabe ere) eta altzaria jarrita egon arteko prozesu guztia gure esku dago. Hemen dauzkagu beharrezkoak diren makina guztiak.

Sakanatik kanpo lan egiten duzue?
Bai, Donostian, Iruñean eta Gasteizen lan egiten dugu. Eta gero hemen inguruan asko.

ITURGINTZA

ZEIN BEROTZE SISTEMA BEHAR DUT?

Ez hain aspaldi etxea bero mantentzeko modu bakarra sua piztea izaten zen. Orain, aldiz, gure beharren araberako berotze edo freskatze sistemak ditugu

Biomasa

Biomasa gure galdaretan erregai gisa erabiliko dugun landare jatorriko materia organikoa da. Gure oihanetako hondakinetatik datorren egurra da, mendiak garbitu eta suteak saihesteko egiten diren garbiketatik sortzen dena.

Egurraren errekuntza energia iturri iraunkorra da, eta gure etxeetan betidanik erabili den materiala da. Berogailu sistema hau aukeratuz gero, erregai merkeago bat erabiltzeaz gain, administrazioaren laguntzak jasotzeko aukera ere izanen dugu.

Geotermia

Lurraren gainazalaren azpian metatutako energia baliatzen duen klimatizazio-sistema da: neguan eraikinak berotu eta udan freskatzeko balio dezakeena.

Truke geotermikoa oso eraginkorra da eraikinen klimatizaziorako. Lur azpiko zirkuitu batean dabilen uraren bidez hartzen da zoruko energia. Sistema benetan sinplea da; lurzoruan egindako zenbait zulo ditu, eta hor instalatzen dira urak ibiltzeko erabiltzen dituen lurpeko kanalizazioak. Horizontalak edo bertikalak izan daitezke zuloak, eta kasu bakoitzean komenigarriena zein den aztertzea komeni da.

Geotermia energia garbia da, ehuneko ehun berriztagarria. Ekonomikoki ere ez da nolanahiko abantaila: etxeak berotzeko energia-kontsumoa %75 inguru jaisten da eta hozteko kontsumoa %50 inguru. Egia da hasieran egin beharreko inbertsioa nahiko handia dela, baina mantentzeko ia ez du lanik. Gainera, bizitza 50 urtetik gorakoa da eta hamar urteren bueltan berreskuratu ohi da inbertitutako dirua.

Higroerregulazioa

Etxe edo eraikin bateko hezetasuna erregulatzeko, aireztapen egokia izatea funtsezkoa da. Horretarako, geroz eta gehiago zabaltzen ari da higroerregulazioa, besteak beste, etxea ongi aireztatua edukitzen, diru dezente aurrezten eta airearen kalitatea hobetzen laguntzen duen aireztapen-sistema delako.

Haizagailuek geletatik haizea xurgatzen dute eta, ondotik, behar adina aire sartzen dute. Gainera, gailu hauek automatikoki neurtzen dute gela bakoitza hornitzeko beharrezkoa den aire emaria. Beraz, kontsumo adimendu eta neurtua da, eta aireberritu behar diren espazioei benetan behar duten erantzuna ematen zaie.

ZORU ERRADIATZAILEA

Sistema honen oinarria zoru azpian uniformeki banatutako hodi-sare bat da. Hodi hauetatik ura joan-etorrian dabil eta uraren tenperatura egokituz eraikinak berotu edo freskatzen dira. Egun, berotze sistema hau puri-purian dago eta bezeroek gehien eskatzen duten berotze sistemetako bat da.

TXORROTAK: BAINUGELARAKO ETA SUKALDERAKO

Txorrotak izan ohi dira gure bainugelak edo sukaldeak eraberritzen ditugunean gehiegi pentsatu gabe aukeratzen dugun elementuetako bat. Pentsa dezakegunaren kontrara, gelari estilo propioa ematen diote

Repisa txorrota

Txorrota zuzenean estalkiaren gainean instalatzen da. Oro har, komunetan erabiltzen dira, baina sukaldean ere jar daitezke. Abantailen artean praktikotasuna, instalazio erraza eta aurrezpena gailentzen dira. Gainera, gehien saltzen den txorrota mota denez merkatuan mota, tamaina eta kolore askotakoak topa daitezke.

PARETAKO TXORROTA

Paretako txorrotak paretetan bertan jartzen dira. Espazioa aprobetxatzea izan ohi da txorrota mota hau hautatzeko arrazoi nagusia. Gainera, estetika klasiko, bakar eta berezia eskaintzen dute.

PELLET BEROGAILUAK

TENPERATURA EGOKIA LORTZEKO AUKERA EKOLOGIKO ETA ERAGINKORRA

Merkatuan pellet berogailu ugari daude. Batzuek, berotzeko funtzioaz gain, kozinatzeko ere erabil daitezke.

Egur pelleta egurra trinkotu eta lehortuz sortzen den erregaia da. Pellet hitza ingelesetik dator eta "bola txikia", "kaka-alea" zein "pikorra" esan nahi du.

Pelleta hainbat formatutan saltzen da: 15 kiloko zakuak (etxeko pelleten berogailuentzat nahikoak), zaku handiak edo soltean (kontsumo handiko biomasa-galdaretarako). Duten formatu pikortsuari esker, pelletak leku gutxi behar du gordetzeko eta erraz garraiatzen da.

ABANTAILAK

- %100 erregai berriztagarria (pelleta) erabiltzen dute, eta, gainera, prezio lehiakorra eta egonkorra eskaintzen du erregai fosilen aurka.
- Pelletak bero ahalmen handia, homogeneotasuna eta osaera konstantea ditu, eta, horri esker, energia errendimendu handiak lor daitezke.
- Airea modu naturalean berotzeaz gain, bero atsegina sortzen du.
- Kontrola modu elektronikoan egiten da. Termostato digitalen eta programagarrien erabilerari esker, berokuntza mota hori urrutitik ere, Smartphone bidez, erregula daiteke.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Pelletak automatikoki biltegitik zuzenean berogailura sartzen dira. Lehenengo pelletak erretzean, sute ganberaren aireztapena abiarazten da, eta airea pasatzen da errauts hobitik, sugarra pizteko. Berogailuek hainbat bero sentsore dituzte beroa identifikatzeko. Beroa identifikatuta trukagailua aireztatzen hasiko da berogailutik kanpora beroa ateratzeko.

Pelletezko berogailua beti kontrol panelaren bidez itzaltzea garrantzitsua da.

Hiru pellet berogailu mota bereizten dira:

- Airez indarturako pellet berogailuak.
- Pellet berogailu kanalizatzaileak.
- Pelletezko termoberogailuak.

BAINUGELAK

ERLAXATZEKO MOMENTUA IRITSI DA

Bainugelek etxeko kideen pertsonalitatea erakusten dute. Aurreko mendeetan ia garrantzirik ematen ez zitzaien espazioak baziren ere, orain justu kontrakoa gertatzen da.

Gaur egun bainugelako elementu guztiak xehetasun handiarekin hautatzen dira, espazio bereizi bilakatuz.

Kolorea

Orain arte, zuria izan da bainugeletan nagusitu den kolorea. Orain, aldiz, koloreek ez dute mugarik: altzariak, bainuontziak, osagarriak, hormak… kolorea nahi duenak badu non aukeratu. Urre kolorea denboraldiko nagusia izanen da. Urre koloreak kontraste polita egiten du material naturalekin.

Ura aurreztea

Txorrota motaren eta energia eraginkortasunaren artean harreman zuzena dago. Etxeko ur kontsumoaren %70a bainugelan xahutzen da. Hori dela eta, azken urteetako aurrerapen esanguratsuenetakoa uraren kudeaketa eraginkorra izan da. Ur ekonomizatzailea da berrikuntza hauetako bat, txorrota lehen posizioan irekiz uraren %50a aurrezten ahal da. Ur kopuru hori nahikoa da erabilera gehienetarako, baina erabiltzaileak nahi badu gehiago ireki eta emari handiago izan dezake. Modu berean, aireztatzaileak nabarmentzen dira zeinak ur emaria murrizten duten.

ETXEEN ZAHARBERRITZEA

ZAHARBERRITZEKO 2020KO LAGUNTZAK

Nafarroako Gobernuak etxebizitzetan eta etxebizitzetarako eraikinetan egiten diren konpontzeko, hobetzeko eta araudira egokitzeko obretarako dirulaguntzak ematen ditu. Sakanan 285 eraikin zaharberritu zituzten 2020an laguntza hauei esker.

Eraikin batek 25 urte baino gehiago izatea da (salbuespena izanda behar berezietarako egokitzeak) etxebizitzetan obrak egiteko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak eskatzeko baldintzetako bat. Gainera, eraikina ez da erabat hustuko, (salbuespena izanda eraikin katalogatu edo babestuak) eta obra-lizentzia eta obra gauzatzeko ezin dira eragozpenik egon. Bestetik, ezin dira obrak hasita egon kalifikatu aurretik, hau da, dirulaguntzak obrak hasi baino lehen eskatu behar dira. 50 urtetik gorako eraikin bat da EET Eraikinak Ebaluatzeko Txostena egina izan beharko du.

Eraikinak zaharberritzeko arrazoiak, besteak beste, bi izan daitezke. Alde batetik, arkitektura oztopoak kentzea eta, bestetik, eraikinaren inguratzaile termikoa hobetzea. Bi kasu hauetan erkidegoak sustatu behar ditu hobekuntzak.

Igogailurik gabeko eraikinetan gehienez 8.000 euro emango da etxebizitza bakoitzeko eta 10.000 euroko laguntza hamaika etxebizitzako azpitik dagoen eraikin bat bada. Kasu hauetan, %45ekoa izango da. Dagoeneko igogailua duten eraikinetan gehienez 5.000 euroko dirulaguntza emango da. Dirulaguntzak %30a beteko luke. Oztopoen araudira erabat egokitu gabe dauden eta igogailurik ez duten eraikinetarako gehienez 5.000 euroko dirulaguntza emango da etxebizitzako (%25eko dirulaguntza) eta araudira erabat egokitu gabe, baina igogailua duten eraikinetan gehienez 3.000 eurokoa izango da laguntza (%20ko dirulaguntza).

Bestetik, eraikinaren inguratzaile termikoa hobetzea esku-hartze orokorreko proiektuetarako %50eko dirulaguntza jaso dezakete eraikineko jabeek, betiere 7.500 euro baino gutxiago bada, etxebizitzako. Instalazio termiko zentralizatuen efizientzia hobetzeko gehienez 6.000 euro emango dira, %40ko dirulaguntza. Hirugarren aukera bat badago eta horretan etxebizitzen barrengo berokuntza-instalazioari eraztunak jartzea eta kontagailua instalatzea da, eta gehienez 3.000 euro emango dira etxebizitzako, dirulaguntzarekin %20.

Etxebizitza askotako eraikinetan ez ezik, Nafarroako Gobernuak eraikinak zaharberritzeko dekretuan pertsona fisikoendako ohiz kanpoko dirulaguntzak aurreikusten ditu. Kasu honetan, gehienez 12.000 eta 25.000 euro banatzen ditu etxebizitza familiabakarretan edo Lehentasunez Zaharberritu beharreko Eremuetan. Dirulaguntza %50etik %5erakoak izango dira, baldintzaren arabera: diru-sarrerak SARA baino 2,5 aldiz txikiagoak eta gutxienez %40ko desgaitasuna duen pertsonaren egokitzea, 65 urtez gorako eta 35 urtez azpiko sus-

EZABU

Nafarroako Gobernuak etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko eskaintzen duen zerbitzua da, Sakanako Mankomunitatean du bulegoa.

948 464 867
LAKUNTZA

tatzaileak edo ezkontideak izan, Lehentasunez Zaharberritu beharreko Eremuan egotea, familia ugariak izatea edo terrorismo eta genero-indarkeria biktima edo Gizarteratze errentaren hartzaileak izatea.

Sakanan guztira 285 herritarrek eskatu dute eraikinak zaharberritzeko dirulaguntzak 2020an. Altsasun izan ziren dirulaguntza jaso duten zaharberritze gehienak: 142. Bigarren postuan Etxarri Aranatz dago 54 eraikinekin. Irurtzunen 36 kasu izan ziren eta Arbizun 10. Sakanako beste herrietan 9tik beherako kopuruak dira eta aurten badira herriak inongo tramiterik egin ez dutenak, besteak beste, Etxarren Hiriberri-Arakil, Satrustegi edo Irañeta.

Guztira, Nafarroako Gobernuak ia 1.512. 812 euro banatu zituen Sakanan eraikinen zaharberritzeak egiteko.

ETXEBIZITZEI EMANDAKO DIRULAGUNTZAK



BIOMASA

ZER DA BIOMASA? NOLA KUDEATU SAKANAKO BIOMASA?

Biomasa, izaki bizidunek beren funtsezko jardueren ondorioz sortutako materia organiko oro da. Hauek guztiak, adibidez, biomasa dira: egurra, zuhaitz hostoak, intxaur oskolak, animalien gorotzak, inausketa hondakinak, landare edo animalietatik lortutako olioak, gizakiak sortutako hondakin organikoak, janari hondakinak, etab.

Honetaz guztiaz gain, biomasa energia da, energia berriztagarria hain zuzen ere. Biomasaren adibide argiena egurra dugu. Egurra erretzean lortzen dugun berotasunaren erabileran oinarritzen da energia berriztagarria hau. Eta zergatik da Biomasa berriztagarria? Egurra erretzean atmosferara isurtzen duen CO^2 kopurua, eta egur bera zuhaitza zenean hazte prozesuan xurgatutako CO^2 kopurua berdina delako. Beraz, atmosferara isuritako kopurua, orotara neutrala dela esan daiteke. Honengatik guztiagatik esaten da biomasaren konbustioak ez duela eraginik berotegi efektuan.

Gaur egun, biomasa egur, pellet zein ezpal moduan erabiltzen da. Azkenaldian, kontsumoan gorakada izugarria izan duen biomasa modalitatea pelleta da; zerrautsa trinkotzean sortzen den zilindro txikia da eta presio bidez ematen diote forma. Zuhaitzetatik zuzenean edo zerrategietako soberakinekin lor dezakegu zerrautsa lehengai gisa. Zerrauts trinkotu honek 21. mendeko gizarte modernoari etxean sua izateko eskaintza zabal eta erosoa egin dio. Gaur egun, etxeko sofatik sua ikusteko ez dugu egur lotea egin beharrik, botoi bat sakatzearekin, nahiko.

Biomasa, Sakanako alternatiba ekologiko eta soziala dela esan genezake. Sakanako basoetatik lortutako egurrarekin bailarako biztanleriaren %100 berogailuz eta ur beroz hornitu genezake era jasangarri eta etengabean. Hori alternatiba ekologiko erreala izateko, kudeaketa Sakanatik Sakanarako filosofian oinarritu beharko litzateke, gure basoetako lehengaia, bailaran produzitutakoa eta Sakandarrek erabiliko dutena.

Orbel biomasa oinarri duten berokuntza sistemen aholkularitza, salmenta, instalazio eta zerbitzu tekniko profesionala eskaintzen duen energia kooperatiba da.

ORBEL
ENERGIA KOOPERATIBA
Biomasa teknikoak / Egurra / Pellet
Zerbitzu integrala / Aholkularitza
Salmenta / Instalazioa / Mantenimendua
Tximinia garbiketa.
Kamara bidezko ikuskaritza-sistema.
640 29 47 89 / 696 71 80 47 / 623 16 54 03
info@orbel.coop | Altsasu
OLATUKOOP
Ekonomia sozial eraldatzaileko kidea

LACUNZA
Natural comfort
ECODESIGN 2022
www.lacunza.net
ADI! Zaindu zure osasuna eta ingurumena gaurtik hasita.
2022.urtetik aurrera ezin izango dira ECODESING araudia betetzen ez duten produktuak kontsumitu.

HAUEK EZ DIRA GUK ERABILTZEN DITUGUN LANABESAK

GUREAK EZAGUTU NAHI?

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436 · 948 564 275
info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu